



GEHIGARRIA
UXOLA SARIAK 2016

107.6 fm · 105.0 fm www.ataria.info



Irakurritiz

idatzi

Haurren begirada, herrigintzarako ezinbesteko

Bigarren ikasturtez jarraian, Haurren Hiria proiektua martxan izan da Tolosan; aisiaren inguruan hausnartu dute, aurten, gaztetxoek.

Itzea Urkizu Arsuaga

Eraikineak, kaleak nahiz berdeguneak egiten dituzte hiriak. Espazio batetik bestera joateko gune soil bezala ikus daitezke, edo autoa aparkatuta uzteko leku moduan. Baina, egiazki, hiriak bizitzeko tokiak dira, espaloi, banku eta petrilak nortasunez betetzekoak.

Mapamundian egokitutako txokoaren arabera, hirien itxura eta paisaia aldatu egiten dira, baina badira hiri guzti-guztietan errepikatzen diren gauzak ere: «Hiriak, oro har, erdi-mailako gizon zuri eta heterosexualek neurritan eraikiak izan dira». Francesco Tonucci pentsalari, psikopedagogo eta marrazkilaria esanak dira horiek, *Haurren Hiria* liburuko orrietan barrena. Italiarrak asko hausnartu izan du hurrek eta gaztetxoek ekosistema urbanoetan duten papez eta, egiari zor, helduek haurrak bigarren mailako hiritar gisa ikusten dituztela dio.

Baina, hainbesteko eragina al du hiriak eraikitze moduak, hiritarren bizitzetan? Bada, bai, antolaketa horrek egunerokoa kudeatzeko moduak aldatzen baititu, ohitura, sentimendu nahiz hizkuntzari ere eraginez. Horrela, ikastetxeetako patioetan gertatzen dena herriko kaleetan errepikatu egiten da, Nerea Cereceda Tolosako gazteria teknikariaren ustez: «Patioetan mutilek eremu zentral eta nagusiak hartu ohi dituzten bezala –nesken gehiengoari bazterreko guneak utziz–, hirietako kale eta ordutegiak helduen neurritan diseinatuta daude. Helduok gure ordutegiak eta espazioak inposatzen dizkiegu hurrei, beren nahiak eta beharrak aintzat hartu gabe», dio.

Eta, bide horretan, gizarteak errealitate hori «naturaltasunez» ikusten du: «Haurrak izaki txiki eta ahul moduan ikusten ditugu helduok sarri, etorkizuneko proiektu moduan. Ez dugu ikusten, ordea, haurrak jabetu egiten direla, eta gutxietsita sentitzen direla».



Haurren Kontseiluan beren ikuskera eta iritziak plazaratzen dituzte 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek. ATARIA

IDEIA GAZTEENAK ERE PLAZARA

Tonucciren ideien sokari helduz, eta haurrak ere lehen mailako hiritar izan daitezke, Tolosako Udala Haurren Hiria izeneko egitasmoarekin lanean hasi zen 2014-2015 ikasturtean.

Haurren Hiria ez al zen, ordea, liburu bat? Bai, hori ere bai. Argitalpenaren izena bera hartu, eta Tolosako neska-mutilek beren ikuskera eta iritziak plazaratzeko gune bat sortzea da, ordea, proiektuaren helburua. Horretarako, Haurren Kontseilua osatzea izan zen arduradunen lehen egitekoa: haurrak ahalduzko pauso bat.

Haurren Hiria egitasmoa ikastetxeen proiektu kurrikularretik kanpoko zerbait da, baina eskola orduetan txertatu zuten herriko hiru ikastetxeek. Horrela, Haurren Kontseilua, zentzurik zabalean, ahalik eta parekideena izateko zenbait irizpide ere zehaztu zituzten. 8 eta 12 urteko neska-mutilek parte hartzen dute bertan, eta parekidea, integratzailea eta parte hartzailea behar du izan. Haur helduenek kontseilua uzten dutenean, gaztetxo berriak sartzen dira; modu horretan, gaztetxo bakoitza bi ikasturtez aritzen da.

Lehen ikasturtean espazio pu-

blikoaren erabilera jorratu zuten bezala, aurten aisiaren inguruan aritu dira eta, besteak beste, urtaroen arabera antolatutako haurrentzako jardura-agenda bat proposatu dute neska-mutil tolosarrek. Lan horren fruituetako bat, San Joan su txikia izango

Aurtengo San Joan su txikia izango da Haurren Hiria egitasmoaren fruituetako bat

Euskal Herriko Haurren Hirien Sarea osatzeko lanean ari dira, udalerrigehiago batzeko helburuz

da, kasu. «Oso gauza sinpleak eskatzen dituzte, beren aisialdirako. Askotan errepikatu digute, esaterako, berdeguneak abentura jolasekin probestu nahi dituztela, eta udala lanean ari da, jada, bide horretan», dio Cerecedak.

BESTEENTZAKO EREDU

Haurren Hiria Tolosako Udaleko sail guztietara iritsi ahal izateko, zeharkako gai bilakatu da erakundeak. Horrela, udal sail guztiak koordinatzeko lankidetzak mahaiak gertutik jarraitzen ditu

gaztetxoek iritziak, beren jardunerako. Eta, bereziki, kale hezitzaileak, Gazteria Saila, Kirola eta Osasuna, Hirigintza eta Parte hartze saila aritzen dira zuzenki proiektuan. Baina, udaletik kanpoko eragileek ere badute hitzik proiektu honetan eta, beraz, herri mailako lantalde bat ere bada, haur eta gaztetxoek esandakoa entzun, eta haiek beharrezko dutenean laguntzeko: «Haurren kontseilua kudeatzea da talde horien egitekoa eta, beharrezkoa denean, aberastea ere bai», dio Cerecedak.

Euskal Herrian gutxi dira haurren betaurrekoetatik hiriari begira jarri diren txokoak. Leioan (Bizkaia) aitzindari izan ziren horretan, eta 2001ean ekin zioten Tonucciren gomendioak jarraitzeari. Horrela, Tolosa da ildo horri heldu dion udalerrigipuzkoar bakarra, eta Arrasate ere jauzia ematekotan dela azaldu du Nerea Cerecedak.

Interesa duten herriei Tolosako esperientzia ezagutarazten ari dira eta, halaber, Haurren Hirien Sarea osatzeko lehen pausok ere eman dituzte, herrigintza egiteko korrante horretara, pixkana, udalerrigehiago batuko direlakoan, haurrak ere lehen mailako herritar bilakatu.

UXOLA SARIAK 2016

Epaimahaikideak.

Miriam Mendoza,
Jesus Peñagarikano,
Susana Larre eta Karlos Linazasoro.

LHko 3. eta 4. mailak

Prosa

1. Nahia Ansorena Irizar.

Ostadarraren zubia
(Hirukide ikastetxea).

2. Peru Ezeiza.

Anuk eta Siluren abentura
(Laskorain ikastola).

3. Leire Badiola Sanz.

Pristi edertasunaren bila
(Samaniego ikastetxea).

Olerkia

1. Beñat Jauregi Agirre.

Loreak (Uzturpe ikastola).

2. Ugaitz Zabala Rezola.

Sarrerako atea (Uzturpe ikastola).

3. Irati Jauregi Etxarri.

Lau urtarok (Hirukide ikastetxea).

LHko 5. eta 6. mailak

Prosa

1. Sarai Zubeldia Elduaen.

Sivieta (Uzturpe ikastola).

2. Leire Salaberria Zubiri.

Kolorerik gabeko pailazoa
(Samaniego ikastetxea).

Olerkia

1. Malen Magro Izagirre.

Gerra iritsitakoan zer?
(Samaniego ikastetxea).

2. Oier Gastesi.

Lagun bat (Laskorain ikastola).

DBHko 1. eta 2. mailak

Prosa

1. Yaiza Fernandez. *Kobazuloko misterioa*

(Laskorain ikastola).

2. Txomin Iztueta Karrera.

Ihes (Laskorain ikastola).

Olerkia

1. Irati Aizpurua Finistroa.

Puntadabatzuk (Uzturpe ikastola).

2. Eneritz Rodrigo Goikoetxea.

Nor zaren jakin nahi dut
(Uzturpe ikastola).

DBHko 3. eta 4. mailak

Prosa

1. Nadin Husein Hernandez.

Fregonaren vals-a
(Laskorain ikastola).

2. Alazne Aizpurua Finistroa.

Egunilunak (Uzturpe ikastola).

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: HIZLAUA

NAHIA ANSORENA IRIZAR 1. SARIA

Ostadarraren zubia

Baziren behin bi herri txiki. Batek Alodi zuen izena eta besteak Errose. Biak mendiaren puntan kokaturik zeuden eta ibai zabal batek banatzen zituen. Herri batetik bestera zeharkatzeko modu bakarra zegoen, Ostadarraren Zubia izeneko zubi polit eta koloretsu bat. Arratsaldero umeak eta helduak herri batetik bestera joaten ziren, jolastera, erosketak egitera, familia eta lagunak bisitatzera... Oso pozik bizi ziren naturak emandako bide harekin.

Ba al dakizue nork sortzen zuen ostadar hura? Ba, eguzkiak eta euriak. Eguzkia eta euria lagun onak ziren eta oso ondo konpontzen ziren. Egun batean Alodi euria ari zen eta Errosen eguzkia zegoen, eta hurrengo egunean alderantziz; horrela, egunero sortzen zen ostadarraren bi herrien artean. Eguzkiak, beroa izanik, ostadarrari kolore epelak



eskaintzen zizkion; hau da, horria, gorria, laranja eta arrosa. Euriak, aldiz, kolore hotzak ematen zizkion: urdina, morea eta berdea. Egun batean, ordea, eguzkia eta euria haserretu egin ziren. Eguzkiak nahi zuen euriak ere, lau kolore ematea ostadarrari, baina euriak esan zuen berak ez

zuela kolore gehiago. Egun hartatik aurrera ez zen gehiago ostadarrari ikusi bi herrien artean. Bertako biztanleak oso triste zeuden; batzuk ezin zuten beraien etxera itzuli, beste batzuk ezin zituzten beraien familiak bisitatu... Arazo ederrak sortu zituzten eguzkiak eta euriak. Hau

konpondu beharra zegoen. Bi herrietako biztanleek bilera bat egin zuten eta eguzkiari eta euriari beraien herriko koloreak eskaini zizkieten: marrubien gorria, suaren laranja, limoiaren horria, hostoen berdea, ibaiaren urdina, arrosen arrosa eta mahatsaren morea.



Hau ikusirik, eguzkiak eta euriak zera pentsatu zuten: bi herrietako jendea hain atsegina eta eskuzabala izanik, merezi zuela ostadarraren arratsaldero azaltzea betiko tokian. Hurrengo egunean, inoiz baino ostadar koloretsuagoa eta zoragarriagoa sortu zuten, eta ordudanik eguzkia eta euria ez ziren inoiz gehiago haserretu.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Alodi eta Erroseko plazetan.

PERU EZEIZA 2. SARIA

Anuk eta Siluren abentura

Aspaldi-aspaldian, lehen gizaki garaian.....Euskal Herriko mendi bailara batean, bost sendiz osatutako tribu bat bizi zen. Urtero udaberri etorrerarekin bat, tribuko hamabost urteko gazteak, Ama kobazuloa ezagutzera bidaltzen zituzten. Halako baten iluntze batean, tribuko zahar jakintsuek, Anuk mutikoa eta Silu neskatila, beraien sutondoan biltzera deitu zituzten.

Zera esan zieten:

Ama kobazuloaren berri gutxi dakigu. Gure arbasoek, guri, eta guk zuei, kobak jasotzen duen sekretua azaldu nahi dizuegu.

Ama kobazulora iristeko mendi arrastoak kontatuko dizkizuegu. Horretarako prest zaudetela badakigu, beraz, entzun.

Lehenengo: baso sorgindua.

Bigarrena: iluntzeko lagun enborra.

Hirugarrena: ilargia buruz behera.

Laugarrena: harea mugikorak.

Bosgarrena: hiru zuhaitzen besarkada.



Ama kobazulora sartu eta, barruan zer dagoen ikusi beharko duzue. Lotara joan eta bihar eguna argitzean abiatu zaitezte.

Zorte on!

Eguzkia atera orduko, Anuk eta Silu, Ama kobazulorantz abiatu ziren. Ordu asko ibili ondoren, baso sorgindua aurkitu zuten.

Basoan sartu orduko, zuloz betetako harkaitz eta Artze enbor

okerrez inguratuta zeudela oharatu ziren. Ez zen eguzki izpirik sartzen. Zuhaitz artetik begiak eta soinu beldurgarriak entzuten zituzten. Beldurturik korrika hasi ziren. Basotik atera nahi zuten. Bat-batean belardi handi bat ikusi zuten. Gaua zen!

Han belardi erdian, lurrean etzanda enbor handi bat zegoen.

Aurkitu dugu! Iluntzeko lagun enborra!

Bertan gaua pasa eta goizean, poltsan zeramatzen fruitu lehor batzuk jan eta, bidea jarraitu zuten. Egun erdiz ibili ondoren, ilargia buruz behera zirudien harkaitz erraldoi bat ikusi zuten.

Hau poza, bide zuzenetik goaz!!! Oihukatu zuten biek!!!!

Bat-batean Harea mugikorak!!! Kontuz!!!! Zaldi bat dago, erori da!!!! Anukek sorbalda zeraman soka hartu, lazoa egin



eta zaldiaren burutik sartu zuten. Bien artean tira eta tira atera zuten zaldia. Berehala lagunak egin ziren, zaldi gainera igo eta salto handi batez harea mugikorak pasatu zituzten.

Begira maldan goran, hiru zuhaitz erraldoi besarkatzen! Esan zuen Silukek.

Eta Ama Kobazuloa!!! Esan zuen Anukek!!!!

Lortu dugu!!!!

Sartu eta barruan, ur dirdiratsu eta gardeneko laku ikusgarri bat zegoen. Biak liluratuta zeuden. Aurkitu zuten Ama kobazuloa, beraien arbasoen sekretua, pentsatu zuten biek, gure sekretua.



LEIRE BADIOLA SANZ 3. SARIA

Pristi edertasunaren bila

Urrutiko baso batean animalia guztiak oso pozik bizi ziren. Animalia ugari zegoen basoan: sugandilak, kilkerak, tximeletak, amona mantangorriak...

Amona mantangorriren familiako alaba gaztearen istorioa kontatuko dizuet. Pristi zuen izena, eta zortzi urte zituen. Pristik egun osoa ematen zuen bere ttantta beltzei eta bere edertasunari begira. Aitak ispilua gastatuko zuela esaten zion, baina Pristiri ez zitzaion inporta. Pristik bere lagunaren artean ederrera izan nahi zuen.

Eskolan lagunek kanpin batera joatea pentsatu zuten, baina Pristiri gurasoek ez zioten uzten, bere nebarekin gaizki portatzen zelako.

Pristi ostiral gaua iritsi zain egon zen, etxetik ezer esan gabe alde egiteko. Bere antza eta tamaina zuen panpina bat bere ohean ondo estalita jarri zuen, eta kanpinera joateko gauzak prestatzen hasi zen. Aita eta ama hamabietan oheratzen zirenez, Pristik hamabi eta erdiak arte itxaron zuen. Leihotik atera, eta korrika kanpinera joan zen. Han lagun guztiak zain zituen. Lagunek logura handia zuten, baina Pristik ondoan zegoen lakuan bainatu nahi zuen. Lakuko urak azala edertzen zuela entzunda zegoen, eta berak animaliarik polit eta ederrena izan nahi zuen. Orduan Pristi lakura bakarrik joan zen eta uretara salto egin zuen.

Kondaira zahar batek esaten



zuen, politena, zeharo itsusi bihurtzen zela, lakuaren uretan bainatu eta gero. Pristik ez zekien honen berri eta gaua zenez, ez zen konturatu bizkarreko ttantta beltz guztiak desagertu zitzaizkiola.

Hurrengo goizean, lagunak esnatzean, garrasika hasi ziren. Pristi esnatu eta bere ttanttak ikusi ez zituenean, pentsatu zuten kanpina sorginduta zegoela eta alde egin zuten. Pristi oso itsusi zegoen eta denak iseka hasi ziren. Pristi negar zotinka zegoen, eta hura ikustean, inguruan zebilen maitagarri bat inguratu egin zitzaion.

Maitagarriak esan zion, handik aurrera ondo portatzen bazen ttanttak itzuliko zizkiola. Pristik ondo portatuko zela eta bere itxurari hainbesteko garrantzirik emango ez ziola agindu zion. Orduan maitagarriak hauts magikoak bota zizkion eta berriro ere ttantta beltzak atera zitzaizkion.

Handik aurrera Pristi oso jator portatu zen familia eta lagunekin, eta animalia guztiek ikasi zuten edertasunak ez duela garrantzirik.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: OLERKIA

BEÑAT JAUREGI AGIRRE 1. SARIA

Loreak

Gustukoak ditut loreak
batez ere moreak
horien artean dabilta
jolasean erleak.

Kolorez janzten dituzte
berdeak dauden zelaia
benetan edertzen dituzte
inguruetako paisaiak.



Tarteka jartzen dituzte
malko bustietan begiak
sarritan alaitzen dituzte
maiteminduen aurpegiak.

UGAITZ ZABALA REZOLA 2. SARIA

Sarrerako atea

Atea ondo ixteko
dugu pestiloa
lapurretan (eg)iteko
askoz zailagoa.

Garrantzitsuagoa da
itxura sendoa
horrelakoxea da
etxeko giroa.

Gero izango dira
askozaz hobekak
behatzekin ireki
itxura topeak



berdin da nolakoak
bere koloreak
begiak itxi ez gero
milaka kolpeak.

IRATI JAUREGI ETXARRI 3. SARIA

Lau urtaroak

Udazken horia,
orbelaz apaindua
badoa urrutira
gure txoria.

Zuria, hotza,
negu beltza
dardarka jartzen gaitu
haize bortitzak.

Epela, alaia,
udaberri koloretsua
lorenz betetzen da
gure zelaia.



Goi-goian eguzkia,
uda urdina
kotxe ilarak errepedeetan
denok dugu jaia.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: HIZLAUA

SARAI ZUBELDIA ELDUAIEN 1. SARIA

Sivieta

Duela bi hilabete edo, ikasle berri bat etorri zitzaigun ikastolako gelara. Sivieta zuen izena eta errumaniarra zen. Sivieta lotsatia eta isila zen eta ez zion inork hitz egiten, ez zitzaion inor gerturatzeko. Gure lagun taldea egina genuen eta ez genuen hura gurekin nahi. Laiene, Joanes, Ura eta ni ginen lagun talde hartan. Beti elkarrekin ibiltzen ginen eta primeran moldatzen ginen. Ez genuen inor gehiago behar. Jolasean orduak eta orduak pasatzen genituen, herriko plazan zein inguruetan. Eguraldi txarra zenean gutako baten etxera joan eta filmaren bat ikusten genuen.

Egunak joan, egunak etorri Sivieta geroz eta bakartiagoa sentitzen zen, ez zuen lagunik. Bai patio garaian zein herriko plazan bakarrik geratzen zen. Goibel eta burumakur ikusten genuen baina ez zitzaigun iruditzen guk ezer egin genezakeenik.

Egun batez, lagun taldeak Uzturrera egun pasa joatea erabaki genuen. Eguraldi bikaina iragarrita zegoen. Ogitartekoak eta kantinplora hartu eta irrikaz eta abentura gosez elkartu ginen herriko plazan. Gu ez ginen ohartu baina Sivieta etxe atzealde batetik zelatan zegoen. Gu gorantz abiatu orduko gure atze-



tik etorri zen guk hura ikusi gabe. Aldapa gogorak igo genituen ozen abestuz, jolastuz eta txistek kontatuz. Ia gurutzera iristear geundela, Joanes irristatu eta zulo batera erori zen. Bi metroko sakonera zuen. Joanesek ez zuen min handirik hartu, kolpe batzuk besterik ez, baina zulo hartatik irteteko ahalegina egiten saiatu zenean, hormetako goroldioak ez zion igotzen utzi. Behin eta berriz saiatu bazen ere, ezin zuen zulo hartatik atera. Gu ere lurtean etzan eta besoak luzatuz, hari laguntzen saiatu ginen, baina gure besoak ez ziren nahikoa luzeak eta gure eskuak ezin ziren elkar-

tu. Inguruan ez zegoen baserririk, ez etxerik. Jenderik ere ez zebilen egun hartan, lan eguna baitzen.

Joanesi malkoak masailetan behera ikustean negargura sartu zitzaigun.

Urduri geunden eta ez genekien zer egin. Herrira laguntza bila joateko denbora asko behar genuen eta gainera ez genuen Joanes bakarrik utzi nahi.

Denok negar malkotan ginela, Sivieta agertu zen bat-batean gure aldamenearan. Gure begiek ezin zuten sinetsi Sivieta han goraino gure atzetik igo zenik. Baina han zegoen eta irribarre batekin gainera!

Bararekin beti ibiltzen zuen poltsa batetik soka-saltoko soka bat atera zuen. Soka hark bi muturrak helduleku gorri batzuekin apainduak zituen eta bat-batean irribarre zabal bat marraztu zen gure aurpegietan. Soka hura gure salbatzailea izango zen eta dena Sivieta esker!

Sivietak soka luzatu zion Joanesi eta hark gogor heldu mutur batetik, Sivietak bestetik eta tira egiten saiatu zen baina Joanesek pisu gehiago zuenez, Sivietak bakarrik ezin zuen haren gorputza gorantz tira.

Orduan, sokaren muturretik denok batera tira genion eta aitarren batean Joanes zulotik kanpo zegoen.

Denok elkar besarkatu ginen, Sivieta ere gure artean genuen eta bene-benetan pozten ginen. Kantari hasi ginen: Sivieeeta, Sivieeeta, pozaren pozez eta eskerrak eman nahian.

Halako batean Sivietaren aurpegia aldatu zen; serio zegoen eta kezka nabaritzen zitzaion. Denok isildu ginen eta hari begira geratu ginen.

Sivieta hizketan hasi zen:

Zergatik bazterten nauzue? Zergatik inor ez da hurbiltzen nirekin hitz egitera edo jolastera?

Orduan konturatu ginen Sivietak ez zuela bakarrik egon nahi, lotsatia zelako ez zela egun har-



tara arte guregana gerturatu eta gaizki sentitu ginen gu ere ez ginelako lagun onak izan, ez genuelako gure artera gonbidatu, triste ikusi eta hala ere ez geniolako inoiz eskua luzatu. Eta orain han zegoen bera, Uzturre puntan, sokasaltoko soka harekin Joanes salbatzean berebiziko lezioa eman zigun, adiskidetasun lezioa, oztopo guztiak gaindituz, baztertua izan genuen aldi guztiak ahaztuz, maitasun osoz laguntza eskaini zigun eta bere bihotza zabaldu.

Guk besoak zabalik jaso genuen gure artean eta estu besarkatu eta negar malkotan barkamena eskatu genion egindako min guztiagatik.

Denok elkarrekin tontorrera iritsi eta Sivietak bazkaririk ekarri ez zuenez, gurea denon artean elkarbanatu genuen pozik.

Egun hartatik aurrera, denok elkarrekin ibiltzen gara beti.

LEIRE SALABERRIA ZUBIRI 2. SARIA

Kolorerik gabeko pailazoa

Duela urte asko ba omen zen Patxiku izena zuen pailazo bat. Parisen bizi zen Alde Zaharreko etxe handi baten azken solairuan. Bere balkoitik bista ikusgarriak zeuden... Eiffel dorrea ere ikusten zen!!!

Patxiku oso berezia zen. Alaia eta bihotz onekoa zen baina, koloreak ez zitzaizkion gustatzen. Kolore zuria, beltza eta grisa bakarrik gustatzen zitzaizkion. Beti antzeko janzten zen. Neguan beltzez edo grisez, udan berriz, zuriz ala grisez.

Egun batean Patxiku bere la-

netik oso haserre atera zen. Zirkoan buru-belarri lanean ari zirela Patxiku pailazoa eta Magic magoa txokatu egin ziren, danba!!!

Kolpearekin, Patxikuren bizikleta hautsi egin zen. Aldi berean Magic magoaren makiltxo magikoa galdu zen. Horregatik arratsalde hartako ikuskizuna oso aldrebasa atera zitzairen.

Patxiku erabat haserre zegoen eta munduko kolore guztien aurka hasi zen. Lehendabizi munduko belar guztiak moztu kolore berdea ez geratzeko, gero pinturara guztiak desagerrarazi, pintu-



rekin margotutako guztia borrotu... hori guztia eta gehiago mundu osoan.

Baina herri txiki-txiki batean, Tolosa izeneko herri txiki batean, armarioetatik, trasteroetatik, garajeetatik... maindireak, arropak... atera eta dena koloreez

bete zuten. Balkoiak batez ere. Zakuak kolorezko paperez bete eta leiho, balkoietatik botatzen zituzten papertxoak.

Patxiku etxera bueltatu zenean konturatu zen kolorerik gabe mundua oso triste dela. Orduak pasa zituen pentsatzen baina azkenean, kotxe bat eta bi kamioi etorri ziren kolorez beteta musika joz. Tolosarrak ziren!!! Patxikuk aprobetxatu egin behar zuen momentua. Esan zien Patxikuk:

- Aizue lagunduko al didazue...?

- Bai, noski - erantzun zien.

Eta joan ziren mundu guztiatik



koloreak banatzen. Nafarroara joan ziren (Ituren, Zubietza, Lesaka...), Kanariar Uharteetara, Cadizera, Italiara, Brasilera... Hiri horiek gero mundu guztira zabaldu zituzten koloreak. Geroztik ohitura da balkoietan kolorezko trapuak zintzilikatzea.

Aurrerantzean koloreak pila bat gustatu zitzaizkion.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: OLERKIA

MALEN MAGRO IZAGIRRE
1. SARIA



Gerra iritsitakoan zer?

Bakerik ez, ditxa bukatu. Herria suntsitu, ez dago teilatu. Jendea hil, familiak banandu. Herriz aldatzean, dena galdu.	Dena ahaztu nahi, igaro dena agurtu. Atzera begiratzean, tristura piztu. Eta pasa dena, amets gaizto bihurtu. Baina gogoratu ESPERANTZA ezin zaizu INOIZ bukatu.
--	--

OIER GASTESI
2. SARIA



Lagun bat

Bada gorroto dudan lagun bat.
Gelara noanean,
Niri pega-pega eginda joaten da.
Bada gorroto dudan lagun bat.
Komunera joatean,
Nirekin sartzen da, hau lotsa!
Bada gorroto dudan lagun bat.
Dantza egitean,
Nire ondoan egoten da,
Ni distraitzeko.
Bada gorroto dudan lagun bat.
Bere izena *itzala* da,
Bihar ez dizut kasurik egingo
esaten diot gaueo.
Bada maite dudan lagun bat.
Bere izena iluntasuna da,
Bera agertzean *itzala* desagertu
egiten baita.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila: HIZLAUA

YAIZA FERNANDEZ 1. SARIA

Kobazuloko misterioa

Euskal Herriko herri txiki batean, Martin bizi zen, hirurogeita hamar urteko gizona. Martin oso gizon atsegina zen, baina bere begietan tristura handia ikusten zen. Askotan ispilu aurrean bere aurpegi zaharra ikusten zuenean pentsatzen zuen: «Zenbat emango nukeen berriro gaztea izateagatik».

Martinek ez zeukan ilusio handirik, baina igandero, herriko plazara joatea gustatzen zitzaion. Han, arratsaldeko zazpietan, musikariek, pieza batzuk jotzen zituzten jendeak dantza egiteko, eta Martin, han esertzen zen eta musika entzuten eta gazteei begiratzen, arratsalde osoa pasatzen zuen.

Igande hartan, neska gazte bat ikusi zuen. Oso polita iruditu zitzaion eta askotan, bere ezpaintedan irrifar atsegin bat ikus zitekeen. Oso alai ematen zuen.

Hurrengo egunean, beti bezala, euskaltegiko plazara iritsi zenean, banku batean eseri zen. Egun hartan euskaltegiko klaseak hasten ziren, eta ikasle talde batzuk sartzen edo ateratzen ari ziren. Bat-patean, Martinen begiak alaiatu egin ziren neska polit hori berriro ikusterakoan, eta bere ondoan pasatzean Martinek pentsatu zuen: «Hogei urte

besterik ez ditu edukiko», eta bere eskuak ximurtutak ikustean, tristetu egin zen.

Handik aurrera, igandero plazara joaten zen ilusio horrekin, baina ilusio hori gero eta handiagoa egiten zen, eta Martin, neska horretaz maiteminduta zegoela konturatu zen. Orduan tristura handia sentitu zuen. Bera zaharregia zen, eta neska hori, inoiz ez litzateke berarengan fijatuko.

Martini txikitatik, mendian ibiltzea, asko gustatzen zitzaion. Egun hartan, ez zegoen oso eguraldi ona, hala ere, Martin mendirantz abiatu zen, baina handik batera, kriston zaparrada hasi zuen, eta Martinek kobazulo batean sartzea erabaki zuen. Kobazulo hartara sartzean, gauza diritiritsu batek bere atentzioa deitu zion, eta hara hurbildu zenean, kristalezko kaxa batean arrosa polit bat sartuta zegoela, ikusi zuen. Oso disdiratsua zenez gero, Martinek arrosa ukitu nahi zuen, orduan, kristalezko kaxaren atea ireki zuen, eta arrosa ateratzerakoan, kobazulo guztia argiz bete zen, eta Martinen aurrean sorgin baten irudia agertu zen. Sorgin hori, zahar eta itsusia zen eta Martini kontatu zion, kobazulo horretan bizi zela eta berrogei urte kristalezko kaxa horretan zeramatzala, bere gaztaro guztia horrela galtzen. Orduan,



eskerrak eman zizkion, malefizio horretatik askatzeagatik eta horren truke, bere desiorik handiena beteko zuela esan zion. Martinek pentsatu gabe, berriro gaztea izan nahi zuela esan zion eta orduan sorginak Martin gizon gazte eder bihurtu zuen. Gero desagertu egin zen esanez handik hilabete batera, bere gazte irudia desagertuko zela betiko itxura izateko.

Hurrengo igandean, Martinek neska polit hori ikustean, dantza eskatu zion, eta horrela ezagutu zuen bere ametsetako emakumea, «Isabel». Isabeli, Martin asko gustatu zitzaion eta arratsalde osoan elkarrekin egon ziren.

Hilabete horretan Martin eta Isabel egunero ateratzen ziren. Martin gizonik zoriontsuena sentitzen zen, baina egunak pasa



ziren eta epea bukatu egin zen. Azken egunean Martinek, agurtu egin behar zuen eta ez zekien nola, Isabeli ez ziolako minik eman nahi. Esan zion, kanpora joan behar zuela lanera eta ez itzaroteko, urte askotarako izango zela eta. Isabelek erantzun zion inoiz ez zuela ahaztuko eta betirako bere bihotzean egongo zela, horrela elkar agurtu zuten.

Hurrengo egunean Martin zahartu egin zen eta bere istorioa amets bat besterik ez zitzaion iruditu, baina desberdintasun batekin, Isabelenganako maitasuna lehen baino azkoz handiagoa zen. Igandea iritsi zen eta Martin plazara joan zen itxaropen batekin, «Isabel ikustea». Hortik aurrera horrekin bakarrik konformatu beharko zuen, baina Isabel ez zen agertu.

Horrela bi hilabete pasa zituen, Isabel ikusi gabe. Martin kezkatuta zegoen eta gaizki sentitzen hasi zen, baina hurrengo igandean Isabel ikustea lortu zuen. Hasieran poz handia sentitu zuen, baina berehala konturatu zuen, Isabel horrek bere ezpainen ez zeukala irifar polit hori, bere aurpegian tristura baizik. Nabaitzen zen ez zela zoriontsua.

Martinek ezin zuen Isabel horrela ikusi eta oso triste bere etxera joan zen. Gau hura pentsaten pasa zuen eta azkenean, sorginaren gogoa joan eta berarekin hiztegitza erabaki zuen berak.

Hurrengo egunean, horrela egin zuen. Mendira joan zen eta kobazuloan sartu zen, han oihuka, sorginari deitu zion eta bapatean kobazulo guztian, barre algarra entzun zen. Martin hasieran beldurtu egin zen, baina handik gutxira sorginaren irudia agertu zen.

Orduan sorginari kontaktu zion zenbat maite zuen Isabel, zenbat behar zuen beso artean berriro

edukitzea eta zenbat emango zukeen berarekin berriro hitz egiteagatik, baina arazo handi bat zeukala, itxura horrekin ezinezkoa zela, horrela inoiz ez zitzaio-lako berari hurbilduko. Sorginak atentzio handiarekin entuten zion, eta Martinek hitzegiten jarraitu zuen. Sorginari esan zion, hori guztia lortzeko, berak lagun liezaiokeela, berriro gazte bat bihurtzen bazuen.

Hori entzutean, sorgina konturatu zen Martin oso inozoa zela, berak inoiz ez zuelako mesede bat egiten, horren truke ez bazuen zerbait ateratzen. Horregatik Martini erantzun zion, berak gazte bihurtuko lukeela baina, berarentzat gauzarik inpotanteena kenduko liokeela, «bere bizia». Martinek ez zuen imajinatzeko hain prezio altua ordaindu behar zuenik, baina pentsatu zuen, ez bazegoen berriro Isabelekin, bere biziak ez zeukala zen-

tzurik, horregatik baietz erantzun zion.

Bapatean, bere gorputzean zerbait arraroa nabaritu zuen, eta segundo gutxitan, bere esku ximurtiak, gazteen esku bihurtzen zirela kusi zuen. Sorginak esan zion hiru egun ematen zizkiola, eta gero itzuliko zela bere bizia kentzeko. Hori esan eta gero, desagertu egin zen.

Martin kobazulatik atera zen eta denbora galdu gabe, Isabelen bila joan zen. Isabelek, Martin ikusi zuenean ezin zuen sinistu ikusten ari zena, baina bere aurpegian poz handia nabaritzen zen. Biek elkar besarkatu zuten. Momentu hartan, Martin munduko gizonik zoriontsuena sentitu zuen.

Behin honetan, Martinek ezin zuen hiru egun Isabelekin egon, eta gero betirako desagertu. Horregatik egi osoa kontatzea erabaki zuen.

Isabeli kontaktu zion nola ezagutu zuen sorgina eta bere gorputzean egin zuen aldeketari esker berarengana hurbiltzera ausartu zela, baina kontaktu zionean zenbat denbora zeraman lehenago berataz mainteminduta, Isabelek negar egiteko gogoia sentitu zuen. Bukatzeko, kontaktu zion hiru egun besterik ez zeukala berarekin egoteko, gero sorginak bizia kenduko zion eta jadanik ez zuen berriro ikusiko.

Isabel istorio guztia entzutean, alde batetik zoriontsua sentitu zen, inork Martinek adina ez zuelako maitatu, baina beste aldetik zerbait egin beharko zuela pentsatu zuen.

Hirugarren eguna bukatu baino lehen, eta Martinek jakin gabe, Isabel sorginaren gogoa joan zen berarekin hitz egitera.

Sorgina agertu zitzaionean esan zion Isabel zela eta Marti-

nen bizia salbatu nahi zuela. Sorgina Isabelen edertasuna ikustean, harrিতuta geratu zen, inoiz ez zuelako hain neska politik ikusi. Momentuan pentsatzen geratu zen eta azkenean Isabeli esan zion aukera bat zeukala Martinen bizia salbatzeko. Horren truke bere gaztetasuna betirako galduko zuela eta zahartu egingo zela.

Isabel hori entzutean, hasieran pixka bat tristetu egin zen. Bere erantzuna ez zen erraza. Bere gaztetasuna galtzen bazuen bere bizitzako zatirik inportanteena berarekin joango zen, baina berehala Martinen irudia burura zetorkion eta zoriontsu sentitu zen. Handik aurrera, bere maitasunak ez zuen oztopo gehiagorik izango, eta betirako elkarrekin egon ziren. Horregatik, baietz erantzun zion.

Honela, sorginak Isabeli bere gaztetasuna kendu zion eta Isabel zahartu egin zen, horrela, Martinen bizia salbatuz.

Orain, igandero, herriko plazan eta jende gazteen artean dantzatzen oso bikote berezi bat ikus daiteke. Jendea haiek ikustean harrিতuta geratzen da.

Baina, nahiz eta itxuraz zaharrak izan, beraien espiritua gaztea da. Haiek badakite inor baino hobeto denbora aprobetxatu egin behar dutela. Biek oso zoriontsuak ematen dute baina ziur aski bere sekretua inork ez du inoiz ezagutuko. Dena eman behar izan zuten elkarrekin egon ahal izateko.

Herriko mendizale batzuek esaten dute oso emakume gazte eta ederra, mendiko kobazulo batean sartzen ikusi dutela. Baina kobazuloan sartzen direnean, emakume hori desagertu egiten omen da.

«Bi pertsonak bakarrik bada-kite nor den».





TXOMINIZTUETA KARRERA 2. SARIA

Ihes

Egun goibela zen hura Iraneko Teheran hiriburuan; haize hotzaren ulua entzun zitekeen kaleetan, baita hegazti migrazaileen hegaldi zalapartaria ere, negua gertu zuten seinale. Noraezean zebiltzan kale-txakurrek putzuetan eginiko plisti-plasten hotsak betetzen zuen kalezuloe-tako ezohiko isiltasuna. Zerua lainoturik zegoen, eta laino grisak edozein unetan lehertuko zirela zirudien. Hiriko auzoetako batean bi mutiko baloiarekin ari ziren jolasean:

-Tori, Mohamed, har ezazu baloia! -oihu egin zion 16 urte ingurukoak 9 urteko anaiari, baloia indar handiz jaurtitzen zion bitartean.

-Omar, hotzak nago! Begira, gorputza dardarka daukat! -erantzun zion mutikoak anaiak jaurtitako baloia ozta-ozta saihestuz.

-Tira, tira, ez da horrenbesterako, baina, nahi baduzu etxera joan gaitzke, ama zain izango dugu eta.

-Ados -erantzun zion anaiak gazteak baloia lurretik jasotzea-ekin batera.

Beraz, bi mutikoak etxerantz abiatu ziren udazken amaierako giro hotzean. Bidean aurrera

zihoazela, ordea, Sirena izugarri batek asaldatu zituen bi anaiak. Hasiera batean, harriturik eta izututa geratu ziren biak, zer egin ez zekitela, baina, minutu batzuetara ulertu zuten sirenaren zergatia: zeruertzeko burrunba baten eta bonbardaketa alarmaren arteko nahasketa beldurgarriak bete zuen hiria, bertako biztanle guztiak ikaratu. Minutu gutxiren buruan hegazkin bonbardatzaile sarda bat agertu zen hodeien artetik, azpian zuten guztia bonba lehergarrien bidez suntsituz. Berehala zabaldu zen hondamena hirian: herritar batzuk izuak jota noraezean korrika egiten zuten familiartekoen edota lagunena bila, beste batzuek etxe birrinduetan harrapatutako senitartekoei laguntzeko ahalegin etsia egiten zuten bitartean.

Omar-ek, *shock* egoera hartatik irtenda, anaiak gazteagoari izuturik esan zion:

- Mohamed hemendik irten behar dugu, eta bizkor! -eta gehiago luzatu gabe, anaiari besotik heldu eta lasterka hasi ziren.

Etxe ingurura heltzean, gurasoak eta Samira 14 urteko arreba aurkitu zituzten etxeko atarian izuturik:

-Mohamed, Omar, onik eta

osorik zaudete! -esan zien amak. Izuturik zegoen, baina lasaitasun handi batek hartu zion gorputza bere bi semeak onik ikustean.

-Tira besarkadak gerorako, orain herio zulo honetatik irten behar dugu! -esan zuen aitak-Hartu beharrezkoa duzue, minutu batean prest ez bagaude irakiarrek garbituko gaituzte! -hori esan eta bere gauzak batzeari ekin zion gainerako guztiak ere berdin egiten zutelarik.

Mohamed eta Omar bien artean partekatzen zuten logelara igo ziren. Omarrek eskolarako motxila zaharrean jantzi pare bat sartu zituen, Mohamedek, berriz, gauetan lo egiteko erabiltzen zuten pelutxezko hartz txikia. Ondoren, biak laster batean irten ziren gelatik besteekin elkartzeko asmoz.

Gobernuko soldaduak berehala agertu ziren hirian irakiarrei aurka egiteko. Denbora gutxian hiriko zenbait kale guduzelari beldurgarri bihurtu ziren. Alde batean, gobernuko soldaduak zeuden, aurkarien erasoerik nola hala eutsiz. Beste aldean, berriz, Irakeko soldadu odolzaleak zeuden, aurrean zuten edozein herritar hiltzeko prest. Erasoerik abantaila zeramaten, gobernuko gudariak ezustean harrapatu

baitzitzuten, eta gainera, haien kuartel nagusia suntsitu zuten. Nahiz eta armadako kideak ongi entrenaturik egon, etsaiek kopuruz erraz gainditzen zituzten, eta ezingo zieten euren erasoerik luza-roan eutsi.

Mohamed eta bere familia hiriko erdigunetik nahiko urrun bizi zirenez, hasiera batean bonba eta tiroetatik salbu zeuden, baina erasoerik laster iritsiko ziren hiriko auzo guztietara, bertako biztanleak akabatzeko.

Denborarik galdu gabe hasi ziren korrika bostak, atzean zuten hondamendiari ez begiratzen ahaleginduz. Gudutik urrundu zirenean apur bat lasaitu ziren nora joan erabakitzeko:


-Eta orain zer egingo dugu? -galdetu zuen Samirak erdi negarrez.

-Ez dakit, etxea galdu dugu, eta laster irakiarrek hiria hartuko dute. Bizirik jarraitzekotan hemendik ihes egin behar dugu -argitu zien aitak.

-Mendira joan beharko genuke, basoan ez gaituzte horren erraz aurkituko -erantzun zion amak.

Orduantxe, ordea, hiru gizon armatu agertu ziren ondoko kale batetik, eta inguruan zituzten iheslariei tiroka hasi ziren.

Omar-ek irakiar gudari batek



ihesi zihoan aitona bat gupidarik gabe hiltzen zuela ikusi zuen, korrika hasi baino lehenago. Kaleetan noraezean lasterka zebilen, suzi eta fusilez armatutako erasoerik taldeak saihestuz. Noizbehinka gorpu hilak topatzen zituen lurrian, bala zorrotzek edota etsaien labanek zulatuak. Bere guraso eta anai-arrebei ere gauza bera gertatu ote zitzaizen galdetzen zion bere buruari. Arriskua oraindik igaro ez zenez suntsitutako etxe batean sartu zen babes bila. Etxea birrindurik zegoen, su eman baitzioten. Oraindik ere ke usain izugarria zegoen, eta egurrezko zutabe sendoak erraustuta ageri ziren, sabaiaren zati bat ezegonkor bilakatu. Lur osoa errautsez eta teila zati birrinduez beterik zegoen, eta erai-kin osoa heriotza eta nahigabe giroak hartzen zuen, bertan sartzen zen edonoren tristura areagotuz. Omar-ek etengabe egiten zizkion «Non egon daitezke nire urasoak» eta «bizirik ote daude»-ren gisako galdera etsiak bere buruari. Zer egin ez zekitela, ba-

nandu baino lehen amak esan-dakoaz oroitu zen:

-Egia da! -esan zuen bere baitarako- plazan geundela, mendira joan behar genuela esan du, han seguruago egongo ginela eta, beraz, bertan egon daitezke.

Hori esan, eta mendialdera joateko bide bat bilatzen hasi zen.

Nahiz eta maite zituenak aurkitzeko itxaropen handirik ez izan, ez zuen amore emateko asmorik eta horman zegoen zulo bat baliatuz inguruan zituen aurkari mugimenduak aztertzeari ekin zion, baina noranzko zehatzik ez zutela ohartuta, bertan behera utzi zuen asmoa. Barrura itzultzekotan zela, ordea, erdi ezkutuan zegoen kale estu bat begiztatu zuen. Itxura batean, behintzat, kale hura mendi aldera ematen zuen bide batera zihoan, beraz, Omar bertara gerturatu zen. Kalea oso estua zen, eta normalean kale txakurren edota eskaleen bitoki gisa soilik izan ohi zen, inor ez baitzen bertatik igarotzen. Omar-ek bidera iritsi zenean eraikin baten hondakinen artean ezkutatu behar izan zuen esaien patruila batek ikus ez zezan. Arriskua igaro zenean, mendira ospa egin zuen. Hiritik nahikoa urrundu zenean, jasotako hondamendira begira jarri zen. «Zer nolako txikizioa...» esan zuen negar malkotan, bere etxea eta jaioterria zen herria suntsituta ikustean. Suteak nonahi zeuden, etxe gehienak birrinduta, herritarrek korri egiten zuten etsi-etsian irakiarrengandik ihes egin nahian, kale ertzetan exekututako hiritarren hilotzak ikus zitezkeen... Gehiago ikusi ezinik, bira erdia eman, eta basoan barneratu zen.

Bi egun igaro zituen inguruko mendietan, hiritik ahalik eta gehien urrundu nahian. Errazio eskasetan banatutako ogia, eta errekaetako ura soilik izan zituen elikagai bi egun haietan.

Tarteka, etsaien taldetxoak ikusten zituen bideetan barrena, iheslari babesgabeak «ehizatze-ko» asmoz, beraz, bide nagusietatik urruntzea erabaki zuen, basoko bidezidorrek erabiliz.

Arratsaldea zen, hura gertatu zenean, Omar basoko adaxkekin eginiko suaren goxotasunean atsedean hartzen ari zela, bi gizonen ahotsak entzun zituen bera zegoen lekutik ez oso urrun. Begi-kliska batean sua itzali, eta inguruko sastraka batzuen atzean ezkutatu zen. Bi gizonak, irakiarrek itxuraz, zuhaitz artetik irten zirenean armaturik zeudela ikusi zuen Omarrek. Zorionez, ez zirudien inguru hartan gertatzeko asmorik, eta baso hura

miatu gabe ospa egingo zutela ematen zuen. Jatekotan zirela, ordea, bi gizonetako batek keinu arraroa egin zuen sudurraz, zerbait usaindu izan balu bezala. Lehenxeago Omar egon zen txokora hurbildu, eta adaxka erreka topatu zituen. Bat-batean, biek armak prestatu eta sasi eta zuhaixkak aztertzeari ekin zioten. Omar ohartu zen arrisku larrian zegoela, segituan iritsiko baitziren bere ezkutalekura eta orduan... ez zuen pentsatu ere egin nahi. Kopetatik izerdi tantak zerizkiola, maldan behera lasterka hasteko ideia izan zuen, izan ere, oraindik etsaiengandik nahikoa urrun zegoen eta, gainera, eurek erreka zati zerako berak nahikoa distantzia aterako zien.

Bi aldiz pentsatu gabe, motxila bizkar gainean zuela egiaztatu, eta bere gogo eta indar handienaz hasi zen korrika. Berak uste eta espero bezala irten zen ia dena: Omarren erabaki azkarrak ustekabe harrapatu zituen bi gizonak, eta biak aldapan behera korrika hasterako, Omarrek dagoeneko eginak zituen 100 bat metro. Halere, aurkariak ongi trebatutako soldaduak ziren, eta hiruren arteko alde murrizten zihoan. Tarteka, bi soldaduak gelditu egiten ziren, errifleaz tiro egiteko angelu egoki baten bila. Nahiz eta asmatzeko ez oso erraza izan, zenbait bala bere burutik gertu igaro ziren, inguruan zituen zuhaitzak zulatuz. Horretan zirela, Omar nekatzen hasi zen, bere erritmoa jaitsiz eta etsaiak dezente hurbilduz. Halako batean, bi gudarietako batek errifleaz tiro egin zuen, eta bala zorrotzak Omarren izterra erdiz erdi zulaturik geratu zen. Orduan, Omar lurrera ziplo erori zen, aldapan behera pilota baten antzera jaitsiz. Bigarren soldadua beste tiro batez mutila akabatzerantz zihoala, ordea, Omarren gorputz zauritua erdi ezkutututa zegoen koska batetik behera erori zen. Lurra jo aurretik entzun zuen azken gauza irakiarren garaien-barre maltzurra izan zen, hildakotzat eman baitzuten. Gero konortea galdu zuen.

Auto bateko atzealdeko eserlekuan esnatu zen, eta izter osoa bendaz bildurik zuen. Autoko ateak irekirik zeuden, eta ez zegoen gidaririk. Halako batean leihoko kristaletik adineko gizon bat hurbiltzen ikusi zuen:

-Aaaaahhh -izan zen irten zitzaion hitz bakarra, oinaze jasangaitza zeukan eta-.

-Lasai, gazte, ondo jarriko zara eta -esan zion biseradun agureak erantzun gisa- odol asko galdu



duzu, eta atsedean hartzea komeni zaizu.

Urez beteriko balde batean oihal zati bat busti, bendak kendu, eta zauriaren inguruko odola garbitu zion. Ondoren, benda berriak jarri eta gazta puska handi bat eman zion:

-Tori, mutiko, on egingo dizu.

-E- e-eskerrik asko -erantzun zion ozta-ozta, eta gazta zatiari hozkada gogotsu bat eman bitartean.

Gizona bolantera joan, eta gidatzeari ekin zion:

-Basoan aurkitu zaitut. Hasi-eran hilda zeundela uste nuen, baina, zorionez ez da hala izan. Irakiarrek izan dira?

-Bai, uste dut...-erantzun zion Omarrek, erabat nahasirik-.

-Irratian entzun dut bai, hegoalde osoan egin dituztela sarraskiak. Oraingo, behintzat, ez dira iparraldera iritsi -esan zion agureak Omarri, lasaiarazi nahian, baina, bere aurpegiaren nabaria zen kezka eta beldur keinua.

Autoa etxalde bateko atarian geratu zen, eta agureak, bere aulkitik, jaitsiz, Omarri lagundu zion gauza bera egiten. Hanka zauritua lurrean jarri zuenean, lurrera erori zen minari ezin eutsirik. Gizonaren laguntzaz zutitu ondoren, etxaldeen sartu ziren:

-Hemen naiz! -esan zuen ahots altuz gizonak. Etxeko atarira agurearen adin bertsuko andere bat irten zen:

-Basoan aurkitu dut -azaldu zion emazteari, Omar seinalatzan zuelarik- irakiarrek zauritu dute.

-Mutiko gaixoa! -esan zuen penaz andreak- zatoz, zatoz barrura, zauri hori lehenbailehen sendatu behar da eta.

Hortaz, bien laguntzaz etxe barrura sartu, eta ohe batean etzan zen. Gero, andereak botika kaxa hartu, eta zauria sendatu zion. Nahiz eta bala zulotik ateratzean izugarritzko oinazea pairatu, gerora, askoz ere hobeto sentitu zen. Handik gutxira, loak hartu zuen.

Hurrengo eguneko eguerdia zen esnatu zenean, ohetik jaitsi, eta ibiltzeko gai zela ohartu zen, nahiz eta oraindik zauriak mina eman. Sukaldera hurbildu zen, eta bertan aurkitu zuen bikote zaharra mahaian eserita:

-Egunon mutiko! Zatoz, bazkaltzen hastera gindoazen eta -agurtu zuen emakumeak mahaian esertzera gonbidatuz-.

Omar eseri egin zen, eta andre-ak haragi platerkada bero bat atera zion.

-Tira, esaguzu, nola iritsi zara hona?-galdetu zion interes biziz-
-Duela hiru egun hasi zen dena...-hasi zen Omar bere gertakizunak kontatzen.

Omarrek kontakizuna amaitzean, emakumea hunkiturik zegoen:

-Mutiko gaixoa! Askok sufritu duzu, gizarajo horrek... Orain atsedean hartzea da zuk behar duzuna. Baina, egia esan, ez zara etorri zaigun lehena, orain dela bi egun neska gazte bat eta mutiko bat etorri baitzitzaizkigun, janari eske. Geratzeko esan genien, baina, beren gurasoak aurkitu behar zituztela eta, aurrera jarraitu zuten.

-Agian Samira eta Mohamed nire anai-arrebak izango ziren!-poztu zen Omar, bere buruan esperantzaren argi berdea pizten zelarik -aurkitu egin behar ditut! Euren bila joan behar dut!-esan zuen gogotsu-.

-Baina gazte, ia ez zara oinez ibiltzeko gauza ere eta! Hobe duzu pare bat egun gehiagoz hemen geratu, guztiz osatu arte.

Nahiz eta bere senitartekoak aurkitzeko desiratzen egon, anderearen ideia berea baino zentzuzkoagoa iruditu zitzaion eta, beraz, geratzera erabaki zuen.

Hurrengo egunean, goizean goiz esnatu, eta kanpora zihoala, sukaldeko irratiko berri lazgarriak entzun zituen:

«Irakiarrek sarraski handiak egin dituzte hegoaldeko hirietan, eta euren erasoek iparraldera joko dutela uste da»-entzuten zen esatariaren ahotsa-.

-Garai latzak dira, mutil -esan zion etxeko atarian zegoen agureak burumakur, berak ere berriak entzun baitzuten.

Buruaz eginiko keinu batez erantzun zion Omarrek.

-Negua badator, eta hobe dugu egurra biltzea -gehitu zuen gizonak, gaia aldatze aldera- eskertuko nizuke egur apur bat ekarriko bazenigu.

-Ados, eguerdia baino lehen hemen izango naiz -esan, aizkora hartu, eta basorantz abiatu zen.

Basoan, pinu txiki bat topatu,

eta aizkorakadak emateari ekin zion, bitartean, bere anai-arrebak aurkitzeko aukeraz pentsatzen zuen bitartean. Bat-batean, bi tiro entzun zituen urrutian. Basoko txoriak hegan hasi ziren, asaldaturik. Omar ere, kezkatu-rik baitzegoen, bikote zaharra bizi zen etxaldera abiatu zen. Etxaldea begiztatu zitekeen muino batera heltzean, izuaren izuan aizkora eskuetatik erori zitzaion: etxalde osoa sugarretan zegoen. Etxaldera hurbiltzean, bera etxean horren abegitsu hartu zuten bikotearen gorpu hilak topatu zituen, biak bala banaz alderik alde zeharkatuak.

Bi hildakoen aurrean makurtu zen negarrez, amorruz lurra jotzen zuelarik. Gero, bi gorpuak inguruko soilgune batean lurperatu zituen, eta loreak ezarri zituen, beren abegi ona nolabait eskertu nahirik. Etxaldea pixkanaka-pixkanaka erori zen, suak kiskalitako zutabeek ezin baitzuten sabaiaren pisua eutsi. Jainkoari zorigaitz gehiago gerta ez ziezazkiola erregutu ondoren, bere bideari ekin zion, anai-arrebak topatzeko asmoz.

Hiru egun luzez aritu zen mendiz mendi, inguruko base-txeetan bi gazteei buruz galdetuz. Zenbaitetan oso erabilgarria zitzaion informazioa ematen zioten bertakoek, Omarrek bere bidea jarrai zezan ahalbidetuz. Laugarren egunean, herrixka batera heldu zen, eta bertan atsedean hartu, eta informazio bila hasi zen. Herritar gehienek ez zituzten ikusi bere senideak, eta berriz ere bideari ekitear zegoela, gizon batek ezagutu zituen Omarrek eginiko deskribapenak:

-Bi gazte? Neska bat eta mutiko bat? Agian bai... bai, noski! Duela bi ordu inguru igaro dira herriaren ondotik, azkar ibiliz gero, ilundu baino lehen aurkituko dituzu.

Gizonari bihotzez eskertu, eta lasterka ekin zion bideari.

Belardietan barrena lasterka ibili zen, tarteka topatzen zituen artzainei gazteen berri galdetuz.

-Oraitxe bertan igaro dira hemendik -argitu zion ardiak bordara zeramatzan artzain batek-.

Erantzuteko astirik hartu gabe ere, lasterka jarraitu zuen anai-arreben bila.

Arratsaldea zen, eta eguzkia mendi artean ezkutatu aurreko gorritasuna ikusi zitekeen zeruertzean. Halako batean, bera zegoen muinoaren azpian bi pertsona begiztatu zituen, neska gazte bat, eta eskutik zeraman mutikoa. Emozioari ezin eutsirik urbildu zen Omar:

-Mohamed? Samira?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila: OLERKIA



IRATI AIZPURUA FINISTROSA 1. SARIA

Puntada batzuk

Mindu ninduten aurretik pentsatu nuen
baina inork ez ninduen utzi min honekin
zure hitzak labana bat baino sakonago mozten dute
orain norbait behar dut
bizitza atzera emateko
sentimendu bat dut erortzen ari naizela
baina badakit bizirik aterako naizela honetatik
«nire maitasuna» deitzeaz uzten badizut
eta aurrera joaten banaiz

nire mozketa ikusten geratzen zara, ahal nuen arte arnasa hartuz.

Dardarka, belauniko erortzen...
eta orain zure musuak gabe nagoela
puntada batzuk behar ditut
neure buruarekin erortzen naiz
deitoratzen, otoitzen laguntza eske etortzeko
eta orain zure musuak gabe nagoela
puntada batzuk behar ditut.
Besterik, tximeleta bat bezala
suaren garrak erakarrita,
amua bat nuen
ezin nuen mina sentitu
zure bihotz mingotsa,
hotza ukitzerakoan.

Orain landatu nuena, jasoko dut
gorria ikusteaz utzi nuen
neure burutik atera behar zaitut
orratz eta hari, hilda bukatuko dut
neure burutik atera behar zaitut
orratz eta hari, hilda bukatuko dut
nire mozketa ikusten geratzen zara, ahal nuen arte arnasa hartuz.

Dardarka, belauniko erortzen...
eta orain zure musuak gabe nagoela,



puntada batzuk behar ditut,
bizitza atzera emateko
aurrera joateko
ez bakarrik sentitzeko
eta berriz ere
zure musuak gabe nagoela,
puntada batzuk behar ditut
zure mina baretzeko.



ENERITZ RODRIGO GOIKOETXEA 2. SARIA

«Nor zaren jakin nahi dut»

Gaur esnatu zara
nire irribarrea ahoan duzula,
ez zaitut ezagutzen
baina esan didate ez zarela edozein.

Zure ile ederra
azaldu zait nire ametsetan,
zure begi politak
nire bihotzean
eta zure jarrera
zabaldu da mundu zabalean.

Txikitatik batera egon garela
ere esan didate,
gauero nirekin ametsak
egiten dituzula
ere entzun dut
baina oraindik
ez dakit nor zaren.

Muxu mordoia banatu
dizkiogula elkarri eta bizipen
handiak pasa elkarrekin.

Batzuetan gauza alaiak,
besteetan ilunak,
baina gogoratu nahi ditut
denak nire burura.
Batera igarotako
gau eta egunak,
eta jakin nahi dut
zuk nire bihotzean
ezkutatuta duzuna
nahiz eta tristeia edo
alaia izan jakin nahi
dut zure
benetako erantzuna.

Oraindik ez dakit nor zaren,
ezta nor izan dezakezun ere.
Pentsakor nabil
egun hauetan
baina ala ere ezerez,
nire bizitzako pertsona
garrantzitsuren bat
zarela badakit
baina nor zaren ez dakit...



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila: HIZLAUA



NADIN HUSEIN HERNANDEZ 1. SARIA

Fregonaren Valsa

Bi eskuak burura igo, ilea bildu eta hasi naiz lanean. Nola ez, gaur ere eskuin eskuaz fregona gogor heldu eta etxe honetako zirrikituetakoko hautsen bila ekin diot, lurreko orban guztiak trapu bustiaz garbitzeko aginduaz, baina fregona nire aldaken mugimenduz asperturik dagoenaren susmoa dut, zazpi urte pasa baitira nire eskuetan preso hartu nuenetik, preso sartu ninduenetik Bladimir Petrovek.

Begiak itxita iritsi nintzen etxe honetara. Ongi oroitzen dut zapia kopetaren azpian jarri zidatenean dena beltz ikusten nuela, baina aldi berean ez nuela ezer




ere ikusten. Isiltasun konstante bat atzetik jarraika izango banu bazela sentitzen nuen, ahots bortitzez sortutako isiltasuna, noizik behin ileetatik norbait tiraka hasten zitzaidan, negarrik ez egiteko oihuka esanez.

Jada badakit Bladimir Petroven etxe sarreran egoten den gizonak ekarri ninduela hona, nire askatasuna eta ni bahituaz.

Geroztik, garbiketako esklabo bihurtu naute, paretetako koadro tristen ispilu, trapu bustiaren izerdi tanta, hautsez ezkutatutako txokoetako xurgagailu eta fregonaren maitale behartua. Egun osoa igarotzen dut etxe zein jardineko bazter zikinen sekretutxoak garbitzen, baina ez dut lortzen larru azal azpian daramatzadan zauriak garbitzea, inoiz esan gabeko hitzen kutxatxo erdoildua ireki eta hura ere garbitzea, barne inpotentzia hau, barneko orbanak desagerraraztea. Hala ere,

garbitzen ditudan altzari, kristal eta koadroak, datorren asterako hautsez betetzen dira, beraz zertarako garbitu larru azal azpiko zikinkeria berriz ere zikinduko bazait? Ba... garbi egotea zer den sentitzeko. Soineko urdina, amantal zuria eta txankletak ditut uniforme, hauek izaten dira fregona eta neure gorputzaren valsen testigu, dutxatu ondoren usain gozoz besarkatzen nauten prenda bakarrak, baina gorrotoa diet. Sarri jardineko kanarioen kantuen altzorian, terrazako aulkian eseri, fregona alde batera laga eta amets egiten dut. Askatasunarekin egiten dut nik amets, eguzki printza batek kanarioaren kaiola



ireki eta nola hegan hasten den imajinatzen dut, hegalak astinduaz nigana gerturatu eta mokoaz amantalaren sokekin gerrian egina dudan korapiloa astiro askatzen didala, nik mototsa eta soinekoa askatu, kanarioaren hegaletatik heldu, eta ihes egiten dugula Bladimir Petroven etxe honetatik, kartzela eta kaioletik, biluzik.

Mingaina sutan jarriko nuke dudan uniformearen denboraren makina bihurtu eta duela zazpi urte atzera egiteagatik, kale kantoi hartatik bakarrik nindoan unean, orain jardinarean sarrean egoten den gizonak, leptik hartu eta kotxera igo nindueneko

unea nire hogeita bi urteko bizitik ezezteagatik, bahitu ninduenari «Zergatik ni?» galdetu eta erantzun zilegi bat jasotzeagatik (nahiz eta badakidan ez dagoela), «Zergatik?» galdetu nahiko nioke, zergatik bihurtu zen Moskuko ni eta beste hainbat emakumeen askatasunaren lapurretako bat, «Zergatik?» mugatu behar nuen nire askatasuna bere nahietara, «Zergatik?» ez utzi bakean dagoena bakean, «Zergatik?» ezin ote nuen ibili lasai kale kantoi hartan bera bezalako mamuak ateratzeko beldurra eduki ordez, «Zergatik?», «Zergatik?». Begiak estali zizkidan zapia erre nahiko nuke

fregonaren hautsetan ni erre aurretik.

Gaur, galdera horien guztien erantzuna ez dakidan arren, beste bat ere egingo nioke: «Zergatik izan behar dut egunez etxeko garbiketa makina eta gauez Bladimir Petroven oheko panpina?».

Asteko egun guztien moduan, goizeko zazpitan hartu dut fregona eskuan eta valsaren erritmoak berdin jarraitzen du, eguzkiak gogor jotzen du egongela eta jardina bereizten dituen kristaleran, eta fregona sartzen dudan ontziko xaboi aparra itzaltzen doa, nire begiekin batera, dena beltz ikusten dut,

baina aldi berean ez dut ezer ikusten. Garbitasun usain konstante bat atzetik jarraika izango banu bezala sentitzen dut, txokoetako hautsez eta xaboi aparez sortutako usaina, noizik behin betileetatik norbait tirak hasten zait, ametsak begiak itxita egiten jarraitzeko oihuka esanez. Lo egin nahi dut, baina ez dut esnatu nahi, fregona sartzen dudan ur eta xaboez betetako ontzia niregana hurbildu, haren parera belaunikatu eta burua sartu dut bertan, zazpi urte igaro ditut preso etxean, eta beste zazpi minutu igaroko ditut ontziaren barruan, ez dut esnatu nahi.



ALAZNE AIZPURUA FINISTROSA 2. SARIA

Egun ilunak

Kintal bat pisatzen zuela zirudien kaxak. Ez nuen gauza pisutsu gehiago eramateko indarrik. Gelako sarrean utzi nuen, atearen alboan. Kaxa hura oroitzapenez betea zegoen, orain arte bizitutako momentu on eta txarrez betea. Ez nuen hura irekitzeko asmorik, ez printzipioz. Bizitza berri baten hasiera zen hura, baina ez nintzen jabetu bizi berri batek ekar zezakeen sufrimenduaz.

Maleta desegin ostean ohean eseri nintzen, parean nuen partari begira. Hutsa zegoen eta zuria zen. Hotza transmititu zidan, baita bakardadea ere. Bakardadea zer zen galdetzen nion neure buruari. Ez nekien ziur zer zen, baina ez zitzaidan bere presentzia sumatzea gustatzen. Ohetik

jaiki eta nire sukalde berrirantz jo nuen, zerbait jateko asmotan. Segituan konturatu nintzen ez nuela jateko ezer. Nire bizileku berria ez zegoen oso kale egokian kokatua, baina nire aurrezkiek ezin zuten zerbait hobea lortu. Kalera jaitea erabaki nuen, dendaren-bat irekita egonez gero zerbait erosteko asmotan.

Oraingoan zortea eduki nuen, pareko kaleko denda txiki bat zabalik zegoen. Dendatxoan sartu eta azken pasilorantz jo nuen, bertan zer zegoen jakin gabe. Konturatu gabe egiten nuen zerbait zen, munduaz ezkutatzeaz ohituta nengoelako, agian. Hainbat produktu hartu ostean ordaintzera joan nintzen sarreara. Bertan zegoen gizonak jaramon asko egin gabe kobratu eta telebista ikusten jarraitu zuen. Beste behin, bakarrik sentitu

nintzen. Gauaren ilunean kaletik nindoala norbait ikustea iruditu zitzaidan. Katu beltz baten itzalak beldurtu ninduen. Ez nituen gauza gehiago imajinatu nahi, nahikoa nuen gaueroko amets-gaizto eta oroitzapen guztiekin.

Eguzki-izpiek agurtu ninduten goizean. Igandea zen, ez nuen kalera irteteko asmorik. Bat-batean barre bat entzun nuen, kaletik zetorren. Leihora gerturatu orduko ikusi nuen dena aldatuko zuen emakumea. Ez nuen ezagutzen, baina barre hark zerbait gogorarazten zidan. Begira geratu nintzen, denbora gelditu izan balitz bezala. Momentu hartan niri begira zegoela konturatu eta atzera pauso bat egin nuen, begiak itxiz. Berrito begiratu orduko ez zegoen bertan. Egunak hasiera ona izan



zuen behingoz. Ez nekien nor zen, baina barre hark irribarre bat sortzen zidan aurpegian.

Hainbat egun igaro ziren, eta ez nuen berriro ikusi. Goizero-goizero barre hura entzuteko zain egoten nintzen, baina ez zen agertzen. Goiz batean kalera jaitea erabaki nuen aspaldiko partez. Ez nekin zergatik, baina neska hura ikustek bakardadean egotetik urruntzen ninduen. Ez nuen auzoa ezagutzen eta ez nintzen ordurarte jabetu kalearen amaieran zegoen kafetegi txikiaz. Kanpoko kristaletik barrua begiratzea otu zitzaidan, eta bertan ikusi nuen. Eserita zego-



en, liburu baten konpainian. Banekien erokeria zela, baina kafetegira sartu eta bere pareko aulkian eseri nintzen, bere mahai berean. Ixiltasuna nagusitu zen. Zerbitzaria gerturatu eta zer nahi genuen galdetu zigun. Kafe batera gonbidatzen nuela esan nion emakumeari, eta irrifar batez baietz erantzun zidan. Ez nekien zer egin, mila gauza etortzen zitzaizkidan burura, baina hitzak ez zitzaizkidan ahotik ateratzen. Urduritasunak garaituta agur esan gabe atera nintzen kalera. Tentel hutsa nintzela uste nuen, barrura begiratu eta barrez ikusi nuen, eskuaz barrura sartzeko keinuak eginez.

-Barkatu, uste dut ez garela oso ondo hasi. Ni Miren naiz. - esan zidan sartu orduko, eskua luzatuz.

-Eh, kaixo. Ni Jon naiz. Barkatu, ez dakit zer gertatu zaidan, ez zitzaizkidan hitzak ateratzen eta...

-Lasai, askotan gertatu izan zait -erantzun zidan.

Ez nuen ezagutzen, baina ez nuen beste ezer behar sentitzen nuena jakiteko.

Egun euritsua zen hura. Kafetegira jaitsi nintzen eta bertan zegoen nire zain, beti bezala. Alarmak ez zidala jo esan nion eta buruaz onartu zuen, ez zitzaion asko inporta pixka bat berandu iritsi izanak.

-Ez larritu, betikoa eskatu dut biontzat -esan zidan irribarretsu.

Miren. Bera zen sentimendu guzti haien sortzailea. Oso lagunak egin ginen. Nire pareko etxean bizi zela esan zidanean ezin nuen sinetsi. Pisu berean bizi ginen, baina bata-bestearen parean. Kale batek banantzen gintuen. Goizero elkartzan ginen gosaltzeko, liburuez hitz egiten genuen, zinera joaten ginen, gauero paperezko hegazkinak bata-bestearen leihotara jaurtiz hitz egiten genuen, musika entzuten genuen egun euritsuetan, tren bera hartzen genuen hirira joateko, barre eragiten nion edozein gauzeekin eta bere barreak itsutzen ninduen... Milaka momentu eta milaka oroitzapen geratu ziren bertan.

Urtarrilaren 14eko goiza zen, dena zuriz estalia zegoen, elurra zen erruduna. Ohetik jaiki eta is-

piluan begiratu nintzen. Egun normal bat zen niretzat. Eskailera zaharrak jaitsi eta kalera irten nintzen azkenengo aldiz. Kafetegira sartu orduko jakin nuen zer bait gertatu zela. Ez zegoen bertan, betiko lekuan eserita nire zain, irri batez egunon esaten. Orduan jakin nuen ez zela itzuliko.

Miren istripu batean hil zen goiz hartan kafetegira bidean, kamioi batek harrapatuta.

Etxera itzuli nintzen. Ohean eseri eta gaueroko paperezko hegazkinak irakurtzeari ekin nion. Bere oroitzapenak, bion abesti guztiak... neguko hotzak eraman zituen denak. Ez zegoen ezer gela hartan. Pareta zuriari begira geratu orduko jakin nuen ezin izan niola dena eskertu, ezin izan nion bere barrea zein gustuko nuen esan.

Jasan nezakeen zigorrik bortitzena jasan nuen, bakardadearen presentzia sumatu nuen berriro. Baina oraingoan ez zen joango, nirekin geratuko zen betiko. Nire bihotza hutsik zegoen, eta bakardadea gordeleku bila zebilen egun hotz hartan.

GEHIGARRIA

UXOLA SARIAK 2016

107.6 fm · 105.0 fm www.ataria.info



kutxabank
hemen
eta orain 

TOLOSAKO  UDALA